

PEDRO ARRUPE. YO VIVÍ LA BOMBA ATÓMICA

Ibañez: “Bonba atomikotik bizirik atera zirenei ahotsa emateko aukera ikusi nuen”

NAIA ARANTZAMENDI

1945eko abuztuaren 6an bonba atomikoa jaurti zuten Hiroshimara, baina oroimen kolektiboan geratu den irudia ez da erretako gorputzena, ezta horiek salbatu nahian ibilitakoe-na ere. Ikuspegi hori, oster, jesuita euskaldun batek bizi izan zuen: Pedro Arrupek. Bere bizipenak oinarri hartu ditu Maite Ibañez zuzendariak *Pedro Arrupe. Yo viví la bomba atómica* filmean.

Filmak izen bereko liburua du oinarri. Zerk piztu zuen zure interesa?

1945eko abuztuaren 6an Arrupe Hiroshiman egon izanak arreta deitu zidan, une zehatz hartan bizitakoa figura ezagutzeko aukera izatea. Ni historiaren eta arkeologiaren mundutik nator, baina ikus-entzunezkoen munduan lanean hasi nintzenetik, batik bat, biktimekin lan egin izan dut, giza eskubideen defentsan, eta nire lanarekin hibakushei, bonba atomikotik bizirik atera zirenei, ahotsa emateko aukera ikusi nuen.

Leire Arrietak Arruperen urratsak jarraitzen ditu liburua ia bidaia gida gisa erabiliz.

Bidaiaaren bidez egituratu nahi izan nuen liburua bere literalitasunean agertzeko modua zelako, Arrupek



JORGE FUERTEBUENA

Japonian eta Erroman egin zituen aztarnak jarraituz. Horrez gain, asko interesatzen zitzaizkion emakume bat izatea. Jesuitei buruzko dokumental

batek maskulinitatearen duen guztia ikusita emakume baten begirada ere behar nuen, unibertsitateko irakasle batena, hain zuzen ere. Filma ez baita Arruperi

buruzko biografia bat; bidaia emozional zein pedagogikoa da. Erantzukizun historiko handia duen bidaia.

Nola aurkitu zenituzten hibakus-hak?

Japonian ekoizleak izateak lagundu egin zigun. Bonbardaketaren 80. urteurrenaren testuingurua aprobetxatu genuen joateko. Eta, noski, pertsona horiek, gutxienez, gertatu zenaren kontzientzia izateko 90 urte inguru izan behar zituzten. Bizirik atera zirenekin hitz egiteko ametsa genuen, Arrupek artatu zituen horiek ezagutzekoa. Baina amets bat iruditzen zitzaigun, ez helburu bat.

Helburua, oster, lortu egin zenuen.

Ez dut gehiegi aurreratu nahi, baina bai, ametsa bete genuen. Beraien azken aukera izan da gertatutakoari buruz hitz egiteko eta pertsona horiek oihukatu egin digute esanez: “Ikusi ezazue zer egiten duen bonba atomiko batek”.

Filmak energia atomikoa helburu belikoetarako erabiltzearen arriskua jorratzen du. Baina baita norbanakoaren gizatasuna ere.

Hori da filmaren gakoa, Arruperen gizatasuna. Dokumentalaren kontakizuna leherketa gertatu eta ordu

gutxira hasten da; Arrupe bonbaren hipozentroan dauden kide batzuen bila ateratzen den unean. Haien bila irten eta energia nuklearrak dakarren izugarrikeria guztia aurkitzen du. Egoera horretan erreakzionatzeko gaitasun izugarria du, lan egiteko eta laguntzeko. Gerraren gizatasunaren isla izan zen.

Baina bere lana egun hartan egin zuenetik haratago doa.

Mundu guztia erori zenean, energia nuklearrari buruz hitz gehiagorik ez egiteko isiltasunaren paktua zabaldu zenean, isiltasunarekin hautsi zuen. Ez zituzten heriotzei buruzko datuak eman. Ez zuten energia nuklearrak dakarren ondorioez hitz egin. Energia horren ondorioak oinordekoek ere jasan zituzten; jasaten ari dira. Gaur egun ere ondorioak baititu energia nuklearrak.

Filma iraganaren oroigarri bat da, baina baita etorkizunerako il-do bat ere.

Hori da. Arrupek 50eko hamarkadan zein 60ko hamarkadan eman zuen oihu horrekin energia nuklearrak egin zuenari buruzko hitzaldiak eman zituen. Niretzat, filma egitea lekuko hori hartzea zen, eta esatea: “Mesedez, entzun ditzagun hibakushak. Bonba nuklearrei ez”.

TXAKUN TXAKÜR

N. A.

Nola aurkitzen dugu gure lekua gizartean? Nola eraikitzen dugu gure nortasuna? Galdera horiei jarraiki abiatu zen Elsa Oliarij-Inès zuzendaria eta *Txakun txakür* bere film luzean bilakatu da emaitza. *Dans leur jeunesse il y a du passé* (2014) eta *Les airs sauvages* (2017) film ertainak zuzendu ostean Donostia Zinemaldiko Zinemira atalean estreinatuko du bere opera prima.

Bere haurtzaroko ikastolara -Zuberoan kokatua- bueltatu da zuzendaria, zehazki, eskolako patiora, eta zortzi urtez haur talde berbera grabatu du. Hemeretzi haur filmatu ditu orotara; haurrek hiru urte zituztenean abiatu zituen grabaketak eta hamaika urtera arte jarraitu ditu. Haur horietako bakoitzak bere nortasuna nola eraikitzen duen ulertzeko saiakera eginez, “gure nortasuna besteen artean eraikitzeke nola egiten dugun filmatu nahi izan dut, gure barneko gu ateratzeko, nor garen atzemateko”.

Eskolako patioa aukeratu du grabaketa egiteko lokalizazio bezala, hain zuzen ere, ezagutzen dugun lehen sozializazio espazioa delako, eta heldurik gabeko gune bat nahi zuelako. “Guztiok izan ohi dugun lehen

Lehenengo jolasaldia



JOKIN FERNÁNDEZ

espazio sozialean grabatu nahi nuen, gurasorik gabeko gunea, irakaslerik gabekoa, haurrek beraien arauak jarraitzen dituzten leku propioa. Adin horretan gure bizitza soziala eremu horretara mugatzen da”.

Jolasa harremanen erdigune izanik, haurren erlazionatzeko moduak jarraitzen ditu kamerak, “jolasaren bidez taldean non kokatzen zaren argi geratzen baita”. Urteak aurrera joan ahala jolasak, gutxinaka, rol joko bilakatzen direlarik: Jolasa nork proposatzen duen, nola banatzen diren rolak, nor dagoen kanpoan, nor barruan... horrekin guztiarekin gizartean kokatzen joaten gara”. Horrela, egoera ezberdinen testigu bilakatzen du ikuslea, bakoitzaren rolak nola aldatzen diren jarraitzeko aukera emanez.

Haurren erritmora mugitzen da kamera, zuzendariak argi baitzuen ez zegoela jarraipen hori egiteko beste modurik; beraien begiradan kamera kokatu eta haurrei ahotsa eman. “Zaila izan zen umeen munduan sartzea heldu izanik. Kamerarekin sartzeko libre sentitu behar nintzela konturatu nintzen, hau da, beraien atzetik joan behar zena ni nintzela, beraiekin batera korrika eginez, beraiek bezala mugitzeke”.

Filmaketarekin abiatu zenean zuzendariak argi zuen haur bakoitzaren ibilbidea jarraitu nahi zuela, ez zuela inor kanpoan utzi nahi. “Niretzat oso garrantzitsua zen haur guztiak filmatzea, ez nuen hautatu nahi, ez nuen bata edo bestea kanpoan utzi nahi, nik filmatzen nuelarik bakoitzaren bidea jarraitu nahi nuen”. Horrela, filmaren une batean klase osoa neska bakar baten aurka nola oldartzen den filmatzen du. Une horretan Elisekin topo egiten du filmak. “Zer ez nuen ikusi indarkeria hura hazten ari zela ez ohartzeko”.

Hasiera batean proiektuak haur bakoitza jarraituz egituratutako telesail bat izan behar zuen, baina bidean erabakiak hartu eta bideak aldatuz joan ziren. Horrela, Elisen bidea jarraitzeko erabakia hartzen da filmean. “Elisek bizi izan duena bizitu dut, hortaz, nik egindako bide berbera bizitzen ari zen haurra aukeratu nuen”.

Ariketa interesgarri bat proposatzen du zuzendariak, gainontzekoen begiradapean gure bidea egin eta gure lekua bilatzeko ditugun borrorak erdigunean jarrita. Testuinguru oso zehatz bat bide hartzen baitu norbanakoaren identitatearen eraikuntzan mugari diren harremanak islatzeko.